



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
Landa-eremua
eta Klima.

GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA.

Jarraipen Batzordea

3. BILERA

Data: azaroaren 14an, Aldundiko Donostiago egoitzan. Ordutegia: 15:30-17:00

BERTARATUAK:

Alderdi politikoak (Batzar Nagusiak):

Xabier Ezeizabarrena (EAJko Batzarkidea)

Igone Lamarain (EH Bilduko Batzarkidea)

Gipuzkoako Foru Aldundia:

Mikel Pagola, Aldundia (Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza)

Arantxa Ariztimuño, Aldundia (Mendien eta Natura Ingurunearen Zuzendaritza)

Xabier Arruti, Aldundia (Ekonomia, Turismo eta Landa Ingurunearen Sustapena)

Sebas Zurutuza, Aldundia (Estrategia Zuzendaritza)

Interes taldeak:

Jesus Mari Lete, Abelur Zerbitzuak

Piter Encinas, Ekologistak Martxan

Xabier Iraola, ENBA

Yurre Peñagarikano, Landaola

Arantzazu Martiarena, Lurgintza

Maite Aristegi, Etxalde

Anais Mitxelena, Aranzadi

Herritarrak:

Ernesto, Herritarren Batzarra

Begoña, Herritarren Batzarra

Begiratzailea:

Gurutze Etxezabal, EUDEL

Talde motorra:

Naiara Goia, Arantzazulab

Urko Aiertza, TmeLab laborategia

Arantxa Mendiharat, Deliberativa

Bileraren sustengu:

Juan Luis Moragues, Aditu Batzordea

Itsaso Olaizola, Aldundia (Gobernantza)

Yago Bermejo, Deliberativa

Bilerara etortzerik ezin dutela adierazi dutenak:

Javier Busselo, Elkarrekin Podemos batzarkidea

Ibon Antero, Mondragon taldea (2.sektorea)

Arantxa Mendiharat (Deliberativa):

- Ongi etorria
- Oharra: Hemendik aurrera itzulpen zerbitzua soilik jarriko da Jarraipen Batzordeko bileran parte hartuko duen pertsonaren batek deialdia egiten denean horrela eskatzen badu.
- Gai ordenaren azalpena:
 - Lehen saioaren balorazioa
 - Bigarren saioaren prestaketa
 - Hurrengo data
 - Beste gaiak.
- Oharrak:
 - Gaztelerara itzulpena behar den aurretik jakitea komeni da gastuak ekiditeko. Beraz, itzulpen zerbitzua soilik jarriko da Jarraipen Batzordeko bileran parte hartuko duen pertsonaren batek deialdia egiten denean horrela eskatzen badu.
 - Bestetik akta ongi jaso ahal izateko izenak zoomeko webean ongi jartzea komeni da.

Piter Encinasek eskaera bat egiten du: norbaitek hitz egitean bakoitzak bere izen edo erakundea ematea.

Arantxa Mendiharat:

-Bi partaide berri ditugula Batzordean azaltzen du, Ernesto eta Begoña herritar batzarreko kideak.

Naiara Goia (Arantzazulab):

Bi kide berri hauek herri batzarreko kideak dira. Zergatik da inportantea hemen egotea? Jakin dezaten zer den Jarraipen Batzordea gaiarekin lotura eta interesa duten eragileek osatzen dutela: sustatzaileak, Gipuzkoako Batzarkideak, eta eragile desberdinak. Helburua a prozesua ongi doala ziurtatzea da, gakoak kontrastatzea, edukia eta hizlariak kontrastatzea, baita irizpideak eta oro har prozesuaren garpena eta integritatea ziurtatzea. Eta hori dela eta zuek ere hau ezagutzea garrantzitsua da eta honen jakitun izatea.

Bolondres eman zitzaaien parte izateko aukera herritar batzarreko kideei eta batzuk apuntatu ziren. Zozketa bidez egin da. Ernesto eta Begoñaren hautaketa.

Arantxa Mendiharat:

Lehen saioaren balorazioekin hasiko garela azaltzen du eta galdera gogorarazten.

Jesus Mari Lete (Abelur):

Duda dauka ia kapazak izango garen ongi trasladatzeko aztertu behar dutena eta parte hartzen dutenak ongi jakingo duten zer egin behar duten eta zein den nekazaritzaren egoera. Adituak era askotakoak daude eta agian pisu gehiago eman beharko litzateke nekazaritzatik bizi direnei. Sindikatuek eskatu zuten baserritarren parte hartzea eta hor azpimarratu behar da prozesua. Beraiek baitira hor dauden eta beraz zeharkako teknikari gutxiago eta baserritar gehiago behar dugu.

Xabier Iraola (ENBA):

Ez dakit asko espero dugun horrelako prozesu batez baina behintzat prestutasuna dugu parte hartzeko. Gutako ordezkari bat izan zen eta hurrengorako ere bota ditugu izen batzuk. Pixka bat gauza teorikotatik haratago joateko eta egungo errealitatea eta jokabideka ezagutzeko baserritarrek egoteko beharra dago. Gizartearen gehiengoa urruti baitabil. Horregatik proposatu ditugu baserritar izenak eta horrela kapazak izatea bere errealitatea eta ikuspuntua helarazteko.

Piter Encinas (Ekologistak Martxan):

Bi zalantza azaltzen ditu. Batetik parte hartzea eta ekitaldia kaleratzea oso garrantzitsua da, eragile eta erakundeei aukera ematea. Zergatik? Orain arte egindako gauzak aldatzeko eta ez erabakitzeko bulego batean egin beharrekoa. Ez dakit noraino izango garen kapazak gaur egungo egoerak eskatzen dizkigun aldaketak ausardiaz egiteko. Ahala eta guztiz ere ahal duguna egin behar dugu eta pixkanaka ikusi noraino iristen garen.

Igone Lamarain (EH Bilduko Batzarkidea):

Ez ginen saioan egon eta beraz prozesua baloratuko dugu amaieran, ia zer konpromiso hartzen diren Aldunditik hortik ateratzen denarekin, eta horren baitan.

Arantzazu Martiarena (Lurgintza):

Beraien lana ahal eta ikuspegi zabalena ematea, hankak lurrean jartzea herritarrei.

Anaiz Mitxelena (Aranzadiko botanika saileko kidea):

Oso interesgarria da guretzako, habitaten kontserbazioa denez gure lana, larreak etab ere oso inportanteak dira eta nekazaritza arloarekin zerikusi handia du.

Jose Luis Moragues (ingurugiro aditua, abokatua, eta irakaslea) (Edukien Batzordea):

Oso interesatua prozesu hau zelan gauzatzen den eta nola bideratzen den ikusteko, oso ekimen interesgarria eta behar duzueneko hemen nago.

Yurre Peñagarikano (Landaola):

Berritzailea den prozesu honetan parte hartzea inportantea da, eta gure aholkularitza eskaintzea.

Maite Aristegi (Etxalde):

Bat nator esan diran gauza guztiekin, oso beharrezkoa da errealitatea ezagutzea, eta sektorearen errealitate gordina ezagutu eta alternatibak ematea. Oso prozesu interesgarria da eta zerbait berria egin nahi badugu inportantea. Aukera guztiak eta errealitate guztiak ezagutzea gakoa izango da.

Begona, Herritarren batzarkidea

Zozketan egotea tokatu zaio. Oso prozesu interesantea

Urko Aiertza (TMeLab):

Gure eginahala batzarreko partaideek ahal eta informazio osatu eta orekatuena izatea bermatzea izan behar da. Entzundakoagatik, lehen saioa oso ongi joan zen.

Sebas Zurutuza (Aldundiko Estrategia zuzendaria)

Prozesuari buruz. Diputazioaren barruan etorkizuna eraikitzeko dinamizazio lanean ibili da, kontu hau babestu egin dugu bi helburu lortu nahian. Gauzak modu berrian egin behar dira eta neurri horretan esperimendu bat izan nahi du. Gero zabaltzeko Bigarrenengo erronka da herritarrek entzun eta deliberatze ahal den eta informazio gehienarekin, eta hori erronka da landa eremua eta klimaren mailan. Ikusten dugu konplikatu dela, ez dela erraza baina itxuraz badirudi oso ongi doala. Entzun dudanari buruz ongi joan zela entzun dugu.

Xabier Ezeizabarrena (Batzar Nagusietako PNVko ordezkaria):

Jakin izan dut proiektuaz aldundiaren aldetik eta hemen nago entzun, ikasi eta parte hartzeko.

Xabier Arruti (Diputazioa):

Erronka dezente ditugu. Bat da hemendik irteten dena ia politikariek betetzen duten. Aurretik dago foroaren erronka egin dugun galdera ongi deliberatzea, eta ekintza interesgarriak definitzea. Galderari dagokionez, asko landutako galdera da, galdera horrela dago egina, ez beste modu batera eta horri erantzun behar zaio.

Arantxa Ariztimuño (Diputazioa):

Erronka inplementazioa izango da baina gu kezkatzen gaitu, prozesua bera esperimendu bat delako eta ia kapazak garen herritarrei informazio zuzena ematea, hortik proposamen aitzindariak etortzeko, horrek markatuko du inplementazioan izan dezakegun arrakasta edo ez.

Gurutze Etxezabal (Eudel):

Prozesuri dagokionez niri tokatzen zaidan haria da aniztasun horretan landa eremua eta herri txikien egoera ere ezagutaraztea, hemen aipatu den bezala anitza delako. Baserritar mota asko dago, eta landa eremua ere zabala dela, mundu asko daudelako landa eremu barruan.

Ernesto, Herritarren batzarreko kidea:

Hemen gaude ikasteko eta ahal duguna emateko.

Naiara Goia (Arantzazulab):

Prozesuaren sustatzaile gisa, mugarrria izan zen saioa. Urtebeteko lanaren emaitza izan da, zegoen energia eta gogoia oso positibotzat jotzen dugu. Aurrera egiteko eta informazio anitza izateko, eta gomendioak egokiak izan daitezzen. Gonbidatuak zaudete behatzaile gisa parte hartzera, gardentasunagatik, ahal eta gipuzkoar gehiagok ezagutu hobe, komunikatu galdetu.... erronka da zabaltzea...

Itsaso Olaizola (Aldundia):

Ni Aldundiko parte hartzeko teknikaria naiz eta mezuak idazten dizkizuena, besteak beste.

Arantxa Mendiharat (Deliberativa):

Prozesuaren diseinuan egiten dugu lan guk.

Mikel Pagola (Aldundia) :

Saioaren balorazioa:

Gogoratzen du entitate komanditarioak (Aldundiak) konpromisok berak hartzen dituela Zeharkakotasuna ematen da proiektuan eta departamentu batzuk gaude bilduta (Estrategia Gabinetea, Ekonomia Sustapeneko zuzendariak, eta Gobernantza departamendua ere)

Hiru entitate sustatzaile ditugu. Egindako lanaren emaitza aurrekoan gauzatu zen. Tentsio handiz iritsi ginen. Zer nolako lankidetzara eskatzen duen ez da ezaguna. Prozesuan lortu genuen, Deliberatibari, esker eta Aztiker eta Artaziak bidez baldintza guztiak edukitzea: 32 herritar, irizpide desberdinen bidez hautatuak.

Aurreneko eguna prozesua azaltzeko erabili zen eta lana bigarren egunean egin zen. Kanpoko adituak etorri ziren beraien ezagutza partekatzeko. Eta hasieratik baziren laborariak eta hori ziurtatzen ari gara. Bi saiotan adituek jendea ahalduntzea da helburua, herritarrek prest egoteko lanketari aurre egiteko. Dinamika oso egokia izan zen eta aberasgarria.

Urko Aiartza: Herriarren Batzarretik zein izan diren eskaerak azaldu zuen.

Javier Busselok (Podemos) balorazioa idatziz pasa zuen.

Xabier Arruti (Aldundia): metodologiak eskatzen du eduki tekniko zientifikoak izatea baina jendeak nahi du ere ehen pertsonako esperientziak....

Arantxa Mendiharat (Deliberativa):

Bai normalean aditu tekniko eta zientifikoak eskatzen ditugu, baina gertatzen da herritarrek lehen pertsonako esperientziak eskatzea. Lehen saioan eskatu genien nekazariari eta basogileei ez hainbeste heien esperientzia partikularra azaltzea baizik eta sektorearen esperientzia.... Hurrengo saioan 8 teknikari, 3 nekazari eta basozain bat izango ditugu.

Lehen saioan ikusi genuen sektorearen eta klima larrialdiaren egoera; bigarren saioan azalduko da egoeraren aurrean aukerak zer diren. Aldunditik zer egiten den eta aukera desberdinak zein diren.

Dokumentua jaso duzue emailez eta ez naiz luzatuko.
Ostiralean hiru teknikari izango ditugu politikak azaltzeko.

Larunbatean, bost hitzaldi:

- Beste lurraldetako esperientziak: Iker Elozegi laborantza ganbara
- Maria Jose Sanz (BC3) mitigazioaz arituko da (Klima eta landa sektorea, energia eta autokontsumoa)
- Carlos Garbizu (Neiker), egokitzeaz arituko da (Nekazariza eta klima)
- Olatz Unamunzaga (Neiker) berrikuntzaz eta teknifikazioaz (Jarduera nola bermatu, ekologia eta nekazaritza barne).
- Juan Luis Moraguesek neurri ekonomiko fiskalak, lege eta gizarte neurriak....
- arratsalde, lehen sektoreko esperientziak izango ditugu. Hiru nekazari eta basozain bat.

Xabier Iraola ENBA:

Lau izen proposatu ditu, Txomin Alberdi, artzaina eta ekologikoan dabilena. Dibertsifikazioan Javier Villar, eraldaketa arloan Arantza Goenaga, eta dibertsifikazioan Egoitz Zapiain sagardogilea.

Maite Aristegi (Etxalde):

Agro-ekologia lantzea aipatu du. Baratzegintzan Ane Gorosabel, eta Josebe Blanco, artzaintzan. Nekazari gazte baten bat saiatu baina ez duena lotu izatea komeni litzateke ere.

Naiara Goia (Arantzazulab):

Behatzaile izateko aukera gogorarazten du. Saioak dira 25 eta 26. Tabakalera izango da. Behatzaile rola da alboan egotea eta ikustea prozesua nola ari den garatzen....

Arantxa Mendiherat (Deliberativa):

Hurrengo bilera data: urtarrilaren 23an, 15.30tan.

Hirugarren saioa Bergaran izango da, hor gomendioak idazten hasiko dira. Azken saioan Urtarrilar en 13/14ean amaituko dituzte gomendioak. Aldunditik arduradun bat etorriko da gomendioak jasotzera. Eta ondoren erantzungo dira idatziz. Data martxoaren 14ean izango da 18.00 da foru Aldundian.

Galderak iradokizunak?

Xabier Iraola (ENBA):

Bidali diren 15.000 eskutizetatik, zenbat jende apuntatu zen?

Mikel Pagola (Aldundia):

160. %1 pasatxo. Zailtasun batekin, kartak jaso zirenean ez ziren nominatiboak. Ez da erakargarriena. Eskertzekoa da erantzun izana. Halere, Tolosako prozesuarekin alderatuz, portzentaia baxuagoa izan da baina inplikazio maila aldiz handiagoa izan da, baiezkoa emanaz. Jende gutxiago baina inplikazio handiagoarekin.

Begoña (Herritarren Batzarra):

Egundoko galdera jarri da, eta hau irakurtzerakoan klaro dago lagundu egin behar dela, baina gauza batzuk badakizkigu, edade bat badugu, gurasoak baziren baserritarrak, gauzak hainbeste aldatu dira, gauzak meioratu dira, baijan askotan zer pena, desde luego lagundu behar dela ez dugu zalantzarik, baina konplikatu. Aldaketan gaude sartuta eta pilak jarri behar dira.

Piter Encinas (Ekologistak martxan):

Esango dudana oinarritzkoa da. Segun nola esaten ditugun gauzak ulergarriak izan daitezke edo ez. Nolabait irudikapenaren isla bat da, ez dakit esaten ari naizena ulertzen den. Zuen dokumentazioa ikusita gai ordena izan da "políticas actuales de la Diputación, otros países, ura, energia..." nere aldetik nik uste dut kontzientzia ekologikoa falta dela. Begira lehen puntua da tresnak, baliabideak erabiltzeko, argi dago beste herrietan egiten dena jakitea ona dela hanka ez sartzeko, uraren kudeaketa ongi dago, berriztagarri energiak ongi dago, agian pepito grilloren lana egiten ari naiz... Hemen Arrasaten eskatu dugu energia berriztagarriak izatea baserrietan, baina gero bosgarren puntua da klima aldaketa, lehen gai ekologikoa bosgarren puntuan dago.. Eta planteatzen da "más experiencia primera primera persona", hau da nolabait dirua berriz. Ez dira ekologia neurriak.... Nere irakurketa da ekologia puntu batean dagoela, nere galdera da guk garrantzia nori ematen diogu, errentagaritasunari edo naturari?

Horregatik esan dut esperantza dudala baina nolabait lehen bileraren isla hau da, eta niri ekologista munduan nabilenez kezkatzen nau.

Ernesto (Herritarren Batzarra):

Berak ezagutzen du bere mundua baina jendeak, herritarrak, ez daki ezer ez, base bat hartu behar dugu denok, ez du garrantzirik 11 puntua eta 5 puntua den. Izatea, basea hartu behar dugu.

Maite Aristegi (Etxalde):

Ereduari buruz hitz egin behar dugu sakon, zer nekazaritza eredurekin, egin behar den aurre, erreduari buruz hitz egin behar dugu, zer erredu behar dugu klima aldaketari aurre egiteko. Eta hor uztartu ahal dira ekologia eta errentagarritasuna, eta hori guztiai kontuan eduki behar da.

Xabier Arruti (Aldundia):

Ez dugu eztabaida sortu beharrik, baina gure abiapuntua da inor ez dela sobran, erredu bat izan edo bestea bertako nekazaritza laguntzea da helburua, gutxienik Australiatik ekarritakoa baino hobea dela hemen produzitzen dena. Ez dut eztabaidan sartu nahi, baina lehen puntua da nola bermatu lehen sektorea kontuan edukiaz ekarpen bat egiten diola klima aldaketari eta horri lotu beharko ginatke.

Arantxa Mendiherat (Deliberativa) :

Amaiera emango diogula adierazten du

Naiara Goia (Arantzazulab):

Web orrian eduki guztiak daudela gogoratzen du.

-Batzarra amaitutzat ematen da-